

E. Knrr-ek jarri du galdera (Deia, 1982-1-29). UZEIko "längileak ez gara zuzenean horri erantzuteko egokienak. Hor daude Hiztegiak, edonoren kritikari irekita. Baina horretarako azpiko erzipideak eta metodologia ezagutu behar dira dago. UZEIk darabiltzanak azalduko ditugu hemen.

Gure hiztegi-lana bideratu gennemetik, metodologia landuz, tresnak hobetuz, lexikologi eta lexikografiko arazoak sakonduz eta erzipideak zehaztuz eta zuzenduz etorri gara. Etengabe ikasten ari gara.

**Testua eta lexikoa batean**

Hiztegiok esku artean eduki dituehak ondo daki, horietako gehienek —oinarrizkoek— bi atal nagusi dituztela: Gaiak eta Lexikoa. Lehenengoa testua da, non, hiru maila ezberdinetako artikulutan, Hiztegiaren alorreko gai handienak eta kontzeptu nagusienak azaltzen bait dirit. Bigarrena, hitz-zerrendak dira; Erdibana hartzen du gutxi gorri behera bi atalok Hiztegi bakoitzean.

Hauxe da Hiztegiaren egituraren arraboa: Lexikoa testuaren gain landu, erabaki eta finkatu behar dela; horren barnean egiaztatzen bait da hitzaren balioa eta egokitasuna. Gure hiztegiaren oinarri-oinarririk eta hasiera-hasiarako erzipidea da hori: "Hitz-zerrendak beti ere frogategia testu jarraituetan du: zerrenda horiek, ahal den guztietan, idazlanetan erabiliak agertu behar dute kalera. Hitz baten balioa textuinguruen baitan frogatu behar da. Lexikoa erabiliagarritasuna erabilera praktikoa ikusiko da garbi, ez zerrenda gorritan" (UHG, 1.1.21).

Ez dugu uste gure Hiztegiok hitz-zerrenda soilzati inola ere hartzerik eta juzgatzerik dagoenik. Orain arte UZEIk egiturari normal horrekin argitaratu dituen sei hiztegiaren artean 2.000 orrialdetik gorako lextu-masa osatzen du.

Zerrenda-itururan landu diren bakoitzak Zirkulazioa, Enpresakoa eta Administrazioakoa izan dira. Eta hori, horrelaxe eskatu zitzaigulako. Hala ere, horrek ez du esan nahi zerrenda horietako hitzak bakoitza bere aldetik eta inolako textuingururik gabe sartuak direnik. Esate baterako, "Ley de Régimen Local"etik hitzak husten direnean eta euskaraz jartzen, hitz bakoitzak du bere textuinguru zehatza eta ondo finkatua. Zirkulazio-kodetik ateratzen denean, beste horrenbeste.

Dena dela, gure eritzia argi dago: Gai hauetan eta bestetan asko idatzi eta etengabe erabili beharrekoa da euskara, hizkera tekni-

koarekin batera, lexikoa zehaztuz, mamituz eta finkatuz joateko.

**Lexiko teknikoaren berezitasunak**

"... Edozein erabaki lexikal hartzekoan UZEIk kontutan hartu behar du, Hiztegi berezituak egiten ari bada, zientzia-tekniketako terminologiaren ezaugarriak ezin ahanztu ditzakeela, hots, eraberdintasuna (uniformetasuna), zehaztasuna, laburtasuna (UHG, 2.4.20). Horiek ez dira kontutan hartzeko oinarritzko erzipide bakarrak noski, baina bai behinena, lexikologia teknikoan adituei jarraiki.

Horregatik, "UZEI (...) zientzi munduak behar eta galdetzen duen terminologia zehatza, esanahi bakoitzeko eta dsberdindua kontutan eduki beharrene dago eta eduki ere badauka, eta badaki elementu horien artean oreka bat lortu behar duela" (UHG, 2.4.22).

Hori da bidea. Jakina, ez dugu uste gure Hiztegiaren bidez helburua iritsi garenik. Sarasolarekin bat etor gaitzake honetan: "Tamalgarrria da beharbada, baina ezin dugu amets egiti urte pare batean euskarak alor guztietan erdaren zehaztasuna lortuko duela". Urte bi baino gehiago darama UZEIk lanean; denon artean bidea irekiz bagoaz, helmuga gero eta hurbilago izaigo da. Baina orain ahal dena egiten saiatzen ez bagara, sekula ez dugu pausorik aurreratu.

**Lexikoaren sorkuntza UZEIn**

Hiztegi tekniko-berezituak lantzeko, lexikografiari eta lexikologiari buruzko ikerkuntza sakondu behar izan du UZEIk; horretarako berruko sail berezi bat antolatzeko ari da orain. Hiru eginkizun nagusi ditu sail horrek: a) Munduan zehar Lexikografia tekniko-berezituar buruzko eskarmentua biltzea; b) Lexikologia teorikoa sakontzea; c) UZEIn lanetarako euskar lexikologia aplikatua aztertzea, eta une bakoitzean hartu beharreko erabakiak proposatzea.

Lexiko tekniko-berezituzaren sorkuntza da noski UZEIn arazo nagusia. Mitxelena berak dioenez, ukazinezko da "la necesidad evidente que tenemos de nuevas palabras, fabricadas o tomadas a préstamo o adaptadas a nuevos usos". Baina berehala agertzen ditu berak UZEIn lan eta erzipidei buruzko susmoak, zalantzak eta beldurrak.

Erzipide orokor eta oinarritzko bezala, hiru iturri hauek erabili behar direla uste du UZEIk: a) Euskal tradizioko hiztegiak; b) Hiz-

**uzei informa y responde (III)**

**«uzei-ren hiztegiak zer balio dute?»**

kuntzarteko terminologia internazionala; c) Euskarazko hitz tradiziionala; d) Erabakiak erabakirik ez direnak. Hirurak konbinatu behar dago, euskararen "normalizazio kulturala" lortzeko. Baina iturri bakoitzak bere arazo handiak ditu lexikologia aplikatuan: guztiak zehaztuz eta argituz, erabaki konkretuak hartu beharra dago, ordei. Hiztegiaren problema berria araber, bere erzipideak konkretizatzen eta zuzentzen saiatu da UZEIk eta Lexikologia aplikatuz hainbat kapitulu nagusi sistematikoki lantzen, bereziki: Hitzen eratorpena, Hitz-elkarketa, Zabalkuntza semantikoa, Berrezarpen lexikala eta Berrikuntza fonologikoa, Kapitulu guzti horiei buruzko liburu bakoitzak aurreratua dauka UZEIk "Lexiko-sorkuntzarako bideak" izenokoa.

**Lexiko-bilketa**

UZEIn egin zaion, zenbait kritikatan puntu haxe nabarmendu da: horrelako hiztegiak egiteko behar den lexiko-husketa. "Lo primero que hay que recoger (...) son los términos vascos atestiguados (Mitxelena); "Hiztegiaren berezitasunak barrena abiatu nahi duenak, gai bakoitzari buruzko lan guztiak aztertuz behar ditu" (Sarasola); "Euskal hiztegiaren husketa eta hitzen bilketa eginak ez ziren garaiak dira hauek" (Knrr).

Ondo jabeturik gaude hasieratik bertatik premia horretaz; eta gure ahalgiri handitoxenak hortxe jarri ditugu: hala ere, dena agortu gabe daukagula aitorzeko lotsarik ez dugu.

Dena dela, hona hemen zenbaki batzu, aski nabarmenak, gure ustez. Hiztegi bakoitza lantzeko hustu diren euskal liburu-artikuletatik ateratako fitxak zenbat izan diren jakiteko:

Hiztegiak	21.000
Natur Zientziak	20.000
Fisika, Kimika, Matematika, Teologia, etab.	
(Elhuyar-ek egindako husketa-lana)	53.000
Politika:	20.000
Psikologia:	5.000
Ekonomia:	6.000
Filosofia:	10.000
Arteak:	4.200
Zuzenbidea:	10.000
Medikuntza:	6.000
Erligioa:	10.000
Historia:	6.000
Kirolak:3.000	
Denetara: 153.000 fitxa. Gainera beste 12.000 baditugu, azken hogei-	

tabost urteotako hainbat aldizkarietan erabiltako "kultur hitzak" jasotzen dituztenak.

Ehundaka artikuluz gain, 550 liburutik gora eta hainbat lexiko eta hitz-zerrenda partzial irakurri eta hustu dira.

"El diccionario se hace en principio sobre textos orales y escritos", dio Mitxelena, "En principio" bat gatzoz berarekin; ondorioz, horixe egiten saiatzen gara. Lexikoaren sinkabidea. Hiru aldetatik biltzen da UZEIko Hiztegiaren ematen den lexikoa: a) Hiztegiarako landuriko gai eta artikuluetatik; b) Erdarazko hiztegi eta testuetatik; c) Euskal literaturatik. Ez da egia, baina, z. UZEIk, erdarazko zerrenda bildu eta hori euskaraz jarri besterik ez duela egiten.

Nahiko landua daukagu gaureragun Hiztegiaren lexikoa finkatzeko prozesu normala; 1) Oinarritzko lehen zerrenda behin-behinkoa eskaintzen zaie artikulugileei, beren lanak idaztean frogatuz, kritikatu eta osotuz joan daitezken; 2) Hiztegiaren zuzentzaileak, artikuluz zuzenduz batera, eta bestelako iturriak ere aztertuz, zerrenda burutu eta euskal formak bateratzen ditu; 3) Zerrenda osoa UZEIko langileen, Hiztegi artikulugileen eta kanpoko beste hainbat gaituren eskuelan jartzen da, kritika dezaten; 4) Kritikak jasotako sailkatu ondoren, Hiztegiako kanpoei, lexiko osoa erabaki eta finkatu egiten du, hitz eta unitate lexikal guztiak banan-banan aztertuz. Erabaki horien arabera, berriro irakurri eta zuzentzen ditu Zuzentzaileak Hiztegioko artikuluguztiak.

"Chapuzza apesurada" ote da hori? Egia da, sarritan gure lankideen eta kontseilarien aldetik kritika sakonagoak eta zabalagoak jasotzen ditugu. Baina, ondoren ere, irekita gelditzen da Hiztegia, irakurleen eta erabiltzaileen eskutian, beren kritikak UZEIn bidal dituzten. Jabeturik gaude, eta hamaika bider aitorruz dugu gure orain arteko Hiztegiak behin-behinkoak direla.

Horregatik, Hiztegi tekniko-berezituzen didaktikarako gidaliburuak prestatzen ari gara orain. Horien asmoa hauxe da: Ikastaro berezien bidez, alor bakoitzeko adituak eta jakitunak beren espezialitateko lexiko-hizkeraz jabetuz batera, hiztegiok kritikatzeko eta frogatzeko, geroa Hiztegi finkatua prestatuz joateko.

**Euskara/Erdarak**

Eleanitzunak dira UZEIn Hiztegiak. Hasieratik bertatik zegoen argi gure erzipidea: euskal lexiko tekniko-berezitua ez zela gaztelaniari begira bakarrik landu behar eta bai frantsesari begira ere, Iparraldeko euskaldunak ere oso kontutan eduki behar zirelako. Horregatik, euskararekin batera beste biei baliakideak jarri genituen.

Baina berehala gehiago zabaldu genuen erzipide hori; eta ingelese eta alemana ere oso kontutan hartu beharrekoak zirela ikusi genuen, euskal lexiko-sorkuntzarako. Bata, gaurko zientzien eta teknikaren munduan duen eraginagatik; bestea, euskal hitz berriak eratzeko eta horien zeri egiti behar dioten erreferentzia ikusteko bide egokiak eskaintzen dituelako sarritan. Uste dugunez, lehen aldiz egiten dira euskal Hiztegiak, sistematikoki beste hizkuntza moderno horiekin batera landuz. Horretarako, beste lankideen artean, Hezkuntzaz (sarritan Hizkuntzaz eta izatez ere bai) ingeles edo aleman diren lagunak ditugu, euskaraz ere ondo dakitenak gainera. Hiztegi bakoitzeko Zuzendari-Zuzentzaileekin batera egiten dute lana horiek. Arago, une honetan, erdarazko gure Hiztegiaren lantzeko eta lexiko tekniko-berezituz lantzen dituzten nazioarteko erakundeekin harremanak estuzeko Departamentu berezi bat antolatzen ari gara UZEI bannuz.

Hiru puntutan azaldu da UZEIk arazo horri buruzko bere erzipidea: "a) Inguruko hiruzpalau hizkuntza aztertzen, nekezago eroriko gara gaztelaniarieratzen; b) hitz-sorketarako idarokizun aberastagoak jasoko ditugu (alemana, e.h., maiz asko lagun hobea dugu, gaztelania baino); c) Hizkera teknikoaren premiazko nazioarteko ibilbidea erraztu egiten zaie euskarari eta espezialistek" (UHG, 1.1.19).

Hala ere, aitortu beharra daukagu zenbat kasutan, frantsesaren eta gaztelaniaren onenetan erabiltzeko, ez daukagula horiek ihesegiteko ahalagirik egin arren.

Bestalde, gerkerka eta latina ezinbestekoak gertatzen dira kultura modernoko eta gaurko zientziatoko terminologi piloa sortzeko. Ez dugu uste euskar normalduak horietatik ihesegiti behar dugunik.

Zer balio dute UZEIn Hiztegiak? Neurri on batez behintzat, eta funtsean, berak darabiltzan erzipideek eta metodologiak balio dutena. Hortik aurrera, langileen gaitasunaz gain, finantzapen-oinarria eta lanaren antolaketak egokitu behar.

UZEIko LANGILEAK